

OSOGUNEKO ERAKASKERA
1999.2000 IKAS URTEA

① ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1. Idazlaririk zeri berdinkatzen du VERDUN?
2. Zer oro zen Verdun-en? Zertako.
3. Nor zen gau-beilari? Zer zion?

② VERDUN LOHIAN

11. Verdungo berri ez dakienak deus handirik ez daki; ematzu nahigabe guziak, ez duzu erraiten aski: gose eta egarriarekin, indarrak orori gaki... eta haizre, xixpa eskuan, soldadoak han egoki!

14. Azken Judizioko erreka hola bide da izanen... Ez arbolarik, ez aldaskarik, loreño bat ez ikusten. Herioaren erresuma da ilhunik hemen hedatzen, atzo horiek eta egun hauk... Ierroka oro erortzen.

Erreka itsusietan ziren berriz ere, eta berriz ere lohian eta hormaren erdian, uri eta elhurraren azpian.

Eta, bere zizpa eskuan pezoin buru batean, gau-beilari zagon Piarres. Haren aintzinean, ilhargi xurietara pitta bat edertua, bethiko toki ustela. Toki ustel hartan, han hemenka, aspaldi-aldi han erori frantses soldado batzuen gorputzek iduri zuten mihise zikin batzuen tartetik harrotzen ari zirela. Urtzen baizik ez ziren ari eta mikotzen, egun guzic gehiago. Bainan, Piarresi hala iduritzen egiazki, higitzen, harrotzen, kasik xutitzen zirela!... Ez! Ilhargia zen ixil-ixila mogitzen, eta Piarres, luzaz meta ilhunerri beha egonik, othoitz baten erraiten ari zen, han eroriak eta bethi ezin-ehortziak zauden lagunentzat.

Bada erran zahar bat, baizik eta persulari sortzen direla eskualdunak oro. Gau eder hartan, etsaiari zonbeit urhatsetan, ikare batek inharrosten ziola bihotza, hil gaixo hetarik batekin persutan ari zen Piarres... Eta, —mirakuilua ez zenez?— persuka ihardesten zion hil hetarik batek... eskualduna izaki hura ere; ez zitezken bertzela.

Eta huna nola ari ziren biak:

- | | |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1. Piarresek | 3. Piarresek |
| Soldado lagun maitea,
ori ixtantean urthea,
gaz batez, hi, hoin gaztea,
hortxet erori haiz trixtea! | Hire hezur xurituak,
guri hoin hurbil ikusteak
bustitzen diauzkuk begiak,
ilhuntzen orori bihotzak. |
| 2. Hilak | 4. Hilak |
| Milesker, nere laguna!
Zonbat goxo bihotz-ona!
Atxik hazkar, atxik barna
hil gaixoen orhoitzapena! | Hire hola entzuteak
inharrosten daiztak hezurak;
hain dituk prezagarriak ²¹
hilez orhoit diren biak! |

5 Piarresek

Ncretzat zer atsegina,
hobian bahindut emana!
Bainan nor hurbil higana?
Ernerik zagok alemana!

III. ADITZ IKHASKUNTZA

- | | |
|-----------------------|--------------------------|
| 31. Ez dakienak | 32. Gau-beilari zagon |
| 33. Inharrosten ziola | 34. Ez zitezken bertzela |

31 JAKIN Indicatif.

<u>Présent</u> <u>Objet singulier</u>	<u>Imparfait</u> <u>Objet singulier</u>
Nik dakit = je le sais	N. nakien = je le savais
Hik dakikizu = tu le sais	H. nahien = tu le savais
Zuk dakizu = vs le savez	Z. zinahien = vs le saviez
Harek daki = il le sait	Ha. zahien = il le savait
Guk dakigu = ns le savons	G. ginahien = ns le savions
Zuek dakizue = vs le savez	Z. zinahiten = vs le saviez
Heiek dakite = ils le savent	He. zahiten = ils le savaient

32. EGON Indicatif.

<u>Présent</u>	<u>Imparfait</u>
Ni nago = je reste	N. nindagoz = je restais
Hi nago = tu restes	H. hindagoz = tu restais
Zu zaudete = vs restez	Z. zinaudete = vs restiez
Hura dago = il reste	Ha. zagon = il restait
Gue gaude = ns restons	G. ginaudete = ns restions
Zuek zaudete = vs restez	Z. zinaudete = vs restiez
Heiek daude = ils restent	He. zaudete = ils restaient

33. UKAN Conj. à dble cplt. Indicatif.

<u>Obj. sing. Cplt indir. sing.</u>	<u>Obj. sing. Cplt indir. plurie</u>
<u>Hari = à lui</u>	<u>Heieri = à eux</u>
Nik nion = je le lui avais	Nik nien = je le leur avais
Zuk zinion = vs le lui aviez	Zuk zinien = vs le leur aviez
Harek zion = il le lui avait	Harek zien =
Guk ginion = ns le lui avions	Guk ginien =
Zuek zinioten = vs le lui aviez	Zuek zinioten =
Hei zioten = ils le lui avaient	Hei zioten = ils le leur avaient

Batua.